

BELDURRARI HORTZAK ERAKUTSI.

Azaroak, 25 indarkeria matxistaren kontrako eguna.

Ez da beldurrari buruz hitz egiten dugun lehen aldia. Zoritxarrez, azaroak 25 gerturatzen den bakoitzean komunikabideek gogorarazten dizkigute beraien bikote edo bikote ohien eskutan hildako emakumeak, handituz doan eraso kopurua, baita erasotzaileen zigorgabetasuna ere. Informazio honen aurrean ezinezkoa da itota, amorratua eta inpotentea ez sentitzea.

Psikologia eta Hezkuntza mundutik beldurra emozio positibo ulertzen da, gerta litezkeen arriskuak saihesteko abisua. Beldurrarik gabe, gure bizitza arriskuan jar lezakeen zerbaiten aurrean ez genuke ihes egiteko beharrik izango.

Baina, beldurra abisu xume bat izatetik gure bizitzako protagonista izatera pasatzen denean, gure osasuna seriooki kaltetuta atera daiteke, fisiko zein psikologikoki.

Hiztegiari begiratzen badiogu, beldurra, modu honetan definituta dago: "Egiazko nahiz irudipenezko arriskuaren hurbiltasunak sortzen duen urduritasunezko egoera -edo kezka egoera-".

Jakin badakigu beldurra gure bizitzako etapa guztietan existitzen dela, haurtzarotik heldutasunera, aipatutako definizioa kontutan hartuta, hezitzaile eta familiaren lana gazte eta umeei beldur errealak zein irudipenezkoak bereizten laguntzea izango litzateke behar den bezala jokatu ahal izateko.

Zoritxarrez adin guztietako emakumeak egunero beldurrarekin bizitzen dira, taberna baten bakarrik sartzeko beldurra, etxera bueltatzeko, toki konkretu batzuetatik pasatzeko, espazio batzuk betetzeko, kirol batzuk praktikatzeko edo lan batzuetan aritzeko. EMAKUNDE-K emandako datuen arabera Euskal Herriko 15- 29 tarteko emakumeen %32ek kalean bakarrik ibiltzeari beldurra diotela dio. Sexu eraso kopurua urtez urte handitzen doala kontutan hartzen badugu ez da harritzekoa. Eta nahiz eta kontra egitea ia ezinezkoa izan, beldur hauek errealak dira.

Beldur horren ondorio bat inhibizioa izaten da, alderatzea edota ehunaka emakumeri beren gaitasunak garatzeko galarazten dien gutxiagotasun konplexua.

Baina beldur hauen atzean ez ditugu egoera pertsonalak topatzen edota ibiltzeko arriskutsuak diren tokiak, baizik eta aldatzen ez den egoera sozial bat, emakumeen kontrako indarkeria estrukturaka ezkututzen duen errealitate bat, edozein adinetako emakumeei askatasunez garatzeko eragozten dien errealitatea, baita gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzea ere.

Emakumeen kontrako eraso zein hilketako datuei begirada bat botatzen badiegu, biktima zein erasotzaileen gaztetasunak ikaritzen gaitu. Gazte hauek gure familietan

egon daitezke eta dela gutxi hezkuntza sistematik pasa ziren, akaso gure geletatik ere bai. Honek, Familiak zein Eskolak jarrera matxisten betikotasunean zein kultura patriarkalaren normaltasun zein legitimotasunean jokatzeko duten paperari buruz hausnartzera behartzen gaitu.

Horregatik, **steilasek** azaroak, 25 dela eta, aurten ere ikastetxe guztietara indarkeria matxistari buruz hausnartzeko material didaktikoa bidali du. Bertan ikasleekin lantzeko ideiak luzatu ditugu non ikasleriari orokorrean eta neskei bereziki, emakumeen kontrako bortizkeriarekin bukatzeko baloreen aldaketa ezinbestekoa dela ulertzen lagundu nahi diegu. Beldurra sortzen digun egoera guztiakin bukatu behar dugula, beldurrik gabeko etorkizuna garatzeko, jendarteak emakumeen kontrako indarkeriaren desagertzea bermatu behar duela.

Eta hemendik instituzioei legislazioa, udalerritako arautegiak, hezkuntzako curriculumak eta indarkeriaren prebentzioarako politiken benetako berrazterketa exijitzen diegu. Balore aldaketarako hiritarrok ezinbestekoak garelako, eta jakina bizi garen errealitatearen ikerketa sakona egiteko mugimendu feministari entzun egin behar zaio.

EMAKUME IDAZKARITZA



www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu